# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia | Iruña, 2024ko maiatzaren 17a | 71. ZK.

**A U R K I B I D E A**

E SAILA:

**Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—11-24/MOC-00060. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita programa bat taxutu dezan, Kubako Gobernuak bere herritarren oinarrizko beharrizanak asetzeko eskatzen duen laguntza humanitarioa bidaltzeko. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsi du (3. or.).

—11-24/DEC-00028. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gizartearen sektore guztiak premiatzen baititu balora eta babes dezaten museoen lan ordainezina eta aitor dezaten gure erkidegoaren kulturaren eta hezkuntzaren aberastasunari egiten dioten ekarpena. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).

—11-24/DEC-00029. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu aurten ere maiatzaren 17ko Homofobiaren, Lesbofobiaren, Bifobiaren eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin. Eledunen Batzarrak onetsi du (4. or.).

F SAILA:

**Galderak:**

—11-24/POR-00200. Galdera, Uharteko Izotz Jauregiaren bideragarritasuna bermatzeko jarduketa edo neurriei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (5. or.).

—11-24/PES-00229. Galdera, errepide bidezko hiriarteko garraiorako lizitatutako emakidei buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (6. or.).

—11-24/PES-00230. Galdera, Gizarte Segurantzari COVID-19 laguntzak itzuli behar dizkioten langile autonomoei buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00231. Galdera, Bidean enpresa publikoaren aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (7. or.).

—11-24/PES-00232. Galdera, abeltzaintzako ustiategietako hondakinen eta hiri-saneamenduaren kudeaketari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (8. or.).

—11-24/PES-00233. Galdera, erosketa publiko berritzailearen proiektuari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (9. or.).

—11-24/PES-00234. Galdera, Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen foru dekretuaren proiektuari buruzkoa. Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egin du (9. or.).
—11-24/PES-00235. Galdera, pandemian zehar erosi edota dohaintzan emandako arnasgailuei buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (10. or.).
—11-24/PES-00236. Galdera, Iruña eta Donostia errepide bidez lotzen dituen hiriarteko garraioaren lineari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (11. or.).
—11-24/PES-00237. Galdera, Tafallako Errekoleten fatxadak garbitzeko proiektua gelditu izanari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (12. or.).
—11-24/PES-00238. Galdera, AHTren Partzuergoaren Kontseiluaren deialdiari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
—11-24/PES-00239. Galdera, Ikerkuntzako Batxilergoaren gaineko araudiari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (13. or.).
—11-24/PES-00240. Galdera, Familia Planaren azken ebaluazioari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (14. or.).
—11-24/PES-00241. Galdera, familia plan berri bat taxutzeari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (14. or.).
—11-24/PES-00242. Galdera, Familia Planaren balorazioari buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (15. or.).
—11-24/PES-00088. Galdera, unibertsitate-beken partida exekutatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
—11-24/PES-00089. Galdera, Boliviako osasun-arduradunek urtarrilaren 15etik 19ra bitartean Nafarroara egindako bisitako agendari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
—11-24/PES-00090. Galdera, Hezkuntza Departamentuaren gizarte- eta hezkuntza-izaerako programei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
—11-24/PES-00091. Galdera, jatorriz migranteak izanik egoera erregularizatugabean dauden pertsonek prestakuntzarako duten eskubidea bermatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
—11-24/PES-00092. Galdera, Nafarroarentzako ikus-entzunezko edukiak biltzeko plataformarako proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-24/SGRP-00004. Talde parlamentarioen eta foru parlamentarien elkartearen 2023ko ekitaldiko urteko kontuak (23. or.).

**E saila:**
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

# 11-24/MOC-00060. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita programa bat taxutu dezan, Kubako Gobernuak bere herritarren oinarrizko beharrizanak asetzeko eskatzen duen laguntza humanitarioa bidaltzeko

*BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2024ko maiatzaren 14an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita programa bat taxutu dezan, Kubako Gobernuak bere herritarren oinarrizko beharrizanak asetzeko eskatzen duen laguntza humanitarioa bidaltzeko. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du programa bat taxutu dezan Kubako Gobernuak bere herritarren oinarrizko beharrizanak asetzeko eskatzen duen laguntza humanitarioa lehenbailehen bidaltzeko.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako eta Kubako herrien arteko harremanak sendotu ditzan, bien arteko harreman ekonomiko eta komertzialak eta ikerketa zientifikoaren arloko harremanak bultza ditzan eta, oro har, Kubarekiko lankidetza-politika manten dezan esparru guztietan eta bertako eragile guztiekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Kubarekiko lankidetza ekonomikorako programa bat taxutu dezan eta giza laguntza urgentea bidal diezaion, herritarrek oinarrizko produktu eta elikagaiak lortu ahal izatea bermatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Kubaren aurkako enbargoaren aurka azaltzen jarrai dezan Nazio Batuen Batzar Nagusia, enbargoa amaitzeko lanean jarrai dezan beste nazio batzuekin batera, eta Estatu Batuei exiji diezaien Kuba Terrorismoa Sustatzen duten Estatuen Zerrendatik ateratzeko.

5. Nafarroako Parlamentuak Estatu Batuetako Gobernuari eskatzen dio berriro ekin diezaion orduko lehendakari Barack Obamak harremanak normalizatze aldera 2016an abiatutako prozesuari, aringarri ekonomiko handia izan baitzen uhartearentzat".

Iruñean, 2024ko maiatzaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## 11-24/DEC-00028. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gizartearen sektore guztiak premiatzen baititu balora eta babes dezaten museoen lan ordainezina eta aitor dezaten gure erkidegoaren kulturaren eta hezkuntzaren aberastasunari egiten dioten ekarpena

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

"1. Nafarroako Parlamentuak gizartearen sektore guztiak premiatzen ditu balora eta babes dezaten museoen lan ordainezina eta aitor dezaten gure erkidegoaren kulturaren eta hezkuntzaren aberastasunari egiten dioten ekarpena. Halaber, berresten dugu kulturarako sarbide unibertsala sustatzen duten eta gure gizartearen ongizaterako funtsezkoak diren erakunde horien garapena eta babesa bermatzen duten politikak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa.

2. Nafarroako Parlamentuak uste du museoak hezkuntza-zentro dinamikoak direla, jakin-mina, sormena eta pentsamendu kritikoa sustatzen dituztenak. Eta, 2024an, aitortzen dugu ikerketari egiten dioten ekarpena, esploraziorako eta ideia berrien zabalkunderako plataforma bat eskaintzen baitute. Artetik eta historiatik hasita zientzia eta teknologiara, museoak hezkuntza eta ikerketa bateratzen dituzten bizi-eremuak dira, gure mundu-ulermenari forma emateko.

3. Nafarroako Parlamentuak gizartea gonbidatzen du parte har dezan Nafarroako museoen bizitza aktiboan eta Nazioarteko Egunaren karietara antolatzen diren jardueretan”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## 11-24/DEC-00029. Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu aurten ere maiatzaren 17ko Homofobiaren, Lesbofobiaren, Bifobiaren eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSI DU*

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du aurten ere maiatzaren 17ko Homofobiaren, Lesbofobiaren, Bifobiaren eta Transfobiaren Aurkako Nazioarteko Egunarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak LGTBI pertsonen aurkako eraso oro gaitzetsi eta arbuiatzen du eta erakundeetatik gorroto zantzu oro desagerrarazteko eta aniztasunaren errespetua sustatzeko konpromisoa hartzen du.

3. Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du LGTBIfobia eta lesbiana, gay, transexual, transgenero, bisexual eta intersexualek pairatzen duten diskriminazioa desagerrarazteko.

4. Nafarroako Parlamentuak sexu-orientazio eta genero-adierazpen guztiekiko tolerantziaren eta errespetuaren alde kontzientziatzeko kanpainak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

5. Nafarroako Parlamentuak, Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren karietara, ostadarraren bandera jarriko du bere fatxadan, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legeak jasotzen duenari jarraikiz”.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**
**GALDERAK**

# 11-24/POR-00200. Galdera, Uharteko Izotz Jauregiaren bideragarritasuna bermatzeko jarduketa edo neurriei buruzkoa

*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Uharteko Izotz Jauregiaren bideragarritasuna bermatzeko jarduketa edo neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Ikusirik Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren adierazpenak, zeinetan borondatea agertzen duen Nafarroako Gobernua parte bat izan dadin Uharteko Izotz Jauregiaren bideragarritasunaren arazoa konpontzerakoan:

Zer jarduketa edo neurri egin gogo ditu Nafarroako Gobernuak Uharteko Izotz Jauregiaren bideragarritasuna bermatzeko?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

# 11-24/PES-00229. Galdera, errepide bidezko hiriarteko garraiorako lizitatutako emakidei buruzkoa

*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, errepide bidezko hiriarteko garraiorako lizitatutako emakidei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integrala 2011ko apirilaren 4an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Gobernuaren 2014ko apirilaren 16ko erabaki bidez, berriz, plan hori berrikustea onetsi zen, eskualde mailako zerbitzuen lurralde-integrazioari erreparatuta.

Planaren berrikuspen horren ondorioz, emakiden mapa berria zehaztu zen, halako moduan non Nafarroan lehen zeuden hiriarteko garraioko 38 emakidak 9 izatera pasatu baitira.

9 emakida horietatik, 4 lizitatu dira orain arte. Zehazki, hauek:

– NAV-001, Pamplona/Iruña–Soria.

– NAV-002, Pamplona/Iruña–Tafalla. Tafallako eskualdea

– NAV-003, Pamplona/Iruña–Tudela–Zaragoza. Erriberabarrena.

– NAV-004, Pamplona/Iruña–Altsasu/Alsasua–Vitoria/Gasteiz. Altsasuko eskualdea.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

1. NAV-001, Pamplona/Iruña–Soria emakidari dagokionez:

Zer egunetan sinatu zen emakida horren kontratua? Zein da emakida horren mugaeguna?

Ba al da kontratu hori luzatzeko aukerarik? Eta, hala baldin bada, noiz arte luza liteke?

Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak emakida hori luzatzea aurreikusten al du?

2. NAV-002, Pamplona/Iruña–Soria emakidari dagokionez: Tafallako eskualdea:

Zer egunetan sinatu zen emakida horren kontratua? Zein da emakida horren mugaeguna?

Ba al da kontratu hori luzatzeko aukerarik? Eta, hala baldin bada, noiz arte luza liteke?

Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak emakida hori luzatzea aurreikusten al du?

3. NAV-003, Pamplona/Iruña–Tudela–Zaragoza emakidari dagokionez: Erriberabarrena:

Zer egunetan sinatu zen emakida horren kontratua? Zein da emakida horren mugaeguna?

Ba al da kontratu hori luzatzeko aukerarik? Eta, hala baldin bada, noiz arte luza liteke?

Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak emakida hori luzatzea aurreikusten al du?

4. NAV-004, Pamplona/Iruña–Altsasu/Alsasua–Vitoria/Gasteiz emakidari dagokionez: Altsasuko eskualdea:

Zer egunetan sinatu zen emakida horren kontratua? Zein da emakida horren mugaeguna?

Ba al da kontratu hori luzatzeko aukerarik? Eta, hala baldin bada, noiz arte luza liteke?

Baiezkoan, Nafarroako Gobernuak emakida hori luzatzea aurreikusten al du?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

# 11-24/PES-00230. Galdera, Gizarte Segurantzari COVID-19 laguntzak itzuli behar dizkioten langile autonomoei buruzkoa

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, Gizarte Segurantzari COVID-19 laguntzak itzuli behar dizkioten langile autonomoei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Espainiako Gobernuaren akats baten ondorioz, COVIDa dela-eta jaso zituzten funts galdurako laguntzak itzuli behar dizkiote Gizarte Segurantzari hainbat langile autonomok. Nafarroako Gobernuak ba al daki zenbat langile autonomori eragin dion akats horrek?

Zenbat milioi euro uste du itzuli beharko dituztela langile autonomo nafarrek hori dela-eta?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 3an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

---

# 11-24/PES-00231. Galdera, Bidean enpresa publikoaren aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak egindako galdera, Bidean enpresa publikoaren aurrekontu-zuzkidurari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuaren 2024rako aurrekontuak milioi bat eta berrehun mila euroko partida bat jasotzen du (1.200.000 euro), "Transferentzia arrunta Bidean" izenekoa, 54002 atalean (Prestazioak eta Itunak).

Hori dela-eta, honako hau jakin nahi dut:

– Zein da Bidean enpresa publikoaren 2024rako aurrekontu-zuzkidura?

– 2024ko aurrekontuetan jasotzen den "Transferentzia arrunta Bidean" partidako 1.200.000 euroko aurrekontu-zuzkidura transferitu al da?

– Baldin eta 1.200.000 euroko aurrekontu-zuzkidura transferitu ez bada, Bidean enpresa publi-

koa nola edo zer finantzaketa/zuzkidurarekin ari da lanean?

– Bidean enpresak zer gastu-aurreikuspen darabil 2025erako?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Domingo González Martínez

---

## 11-24/PES-00232. Galdera, abeltzaintzako ustiategietako hondakinen eta hiri-saneamenduaren kudeaketari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, abeltzaintzako ustiategietako hondakinen eta hiri-saneamenduaren kudeaketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Ultzama, Anue eta Odietako ibarretan abeltzaintzako ustiategietako hondakinen eta hiri-saneamenduaren kudeaketa dela-eta gertatzen ari den arazo estrukturala ikusita, Ingurumen Departamentuak zer neurri hartuko du horiek kudeatzeko?

Ultzamako biogas-plantaren jarduera berriz abian jartzeko asmorik ba al du? Planta ezertarako erabiltzen al da gaur egun?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Félix Zapatero Soria

---

# 11-24/PES-00233. Galdera, erosketa publiko berritzailearen proiektuari buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, erosketa publiko berritzailearen proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Zertan da "Ikerketa-inguruneetan molekula txikien arazketarako eta ekoizpenerako plataforma berritzailea" erosketa publiko berritzailearen proiektua?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

# 11-24/PES-00234. Galdera, Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen foru dekretuaren proiektuari buruzkoa

*MIREN ITXASO SOTO DÍAZ DE CERIO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galdera, Nafarroako Kirolaren Erregistroa arautzen duen foru dekretuaren proiektuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Ceriok, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Turismo eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilari Rebeca Esnaola andreari, idatziz erantzun diezaion:

Legegintzaldi hasierako agerraldian, non datozen lau urteotan departamentuak eginen duen lanaren ardatz estrategikoak azaldu baitzituen, Nafarroan kirolaren erregistroa arautuko duen foru-dekretuaren proiektua aipatu zuen Esnaola kontseilariak; izan ere, egin beharreko txostenak eta memoriak prestatzen ari ziren une hartan.

Aurretiazko kontsultaren izapidea eta jendaurreko epea bukatuta daudenez, jakin nahi dut ea zertan den foru-dekretuaren proiektua eta ea departamentuak zer epe darabilen gogoan hori onesteko.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 7an

Foru parlamentaria: Itxaso Soto Díaz de Cerio

# 11-24/PES-00235. Galdera, pandemian zehar erosi edota dohaintzan emandako arnasgailuei buruzkoa

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, pandemian zehar erosi edota dohaintzan emandako arnasgailuei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Pandemian erosi edota dohaintzan emandako zer arnasgailuk betetzen zituzten –eta zeinek ez– kalitate-estandarrak?

Estandarrak betetzen ez zituztenen kasuan, zergatik ez? (Zehaztu arrazoia, kasuz kasu).

Sor litezkeen beharrizanetarako laguntza-eginkizunetan pandemiaren ondotik erabiltzen ari ez diren zenbat arnasgailu daude biltegiratuta? Sor litezkeen zer beharrizanetan erabil litezke? (Zehaztu kasuz kasu).

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

# 11-24/PES-00236. Galdera, Iruña eta Donostia errepide bidez lotzen dituen hiriarteko garraioaren lineari buruzkoa

*MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Iruña eta Donostia errepide bidez lotzen dituen hiriarteko garraioaren lineari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendiak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Bidaiarien Hiriarteko Garraio Publikoaren Plan Integrala 2011ko apirilaren 4an onetsi zuen Nafarroako Gobernuak.

Nafarroako Gobernuaren 2014ko apirilaren 16ko erabaki bidez, berriz, plan hori berrikustea onetsi zen, eskualde mailako zerbitzuen lurraldeintegrazioari erreparatuta.

Planaren berrikuspen horren ondorioz, emakiden mapa berria zehaztu zen, halako moduan non Nafarroan lehen zeuden hiriarteko garraioko 38 emakidak 9 izatera pasatu baitira.

9 emakida horietatik, 4 lizitatu dira orain arte. Zehazki, hauek:

– NAV-001, Pamplona/Iruña–Soria.

– NAV-002, Pamplona/Iruña–Tafalla. Tafallako eskualdea

– NAV-003, Pamplona/Iruña–Tudela–Zaragoza. Erriberabarrena.

– NAV-004, Pamplona/Iruña–Altsasu/Alsasua–Vitoria/Gasteiz. Altsasuko eskualdea.

Hortaz, honako emakida hauek daude lizitatu gabe:

– Pamplona/Iruña–Irun. Baztan-Bidasoako eskualdea

– Pamplona/Iruña–Pirinioa.

– Pamplona/Iruña–Donostia/San Sebastián. Ipar-mendebaldea.

– Pamplona/Iruña–Estella/Lizarra-Logroño–Donostia/San Sebastián. Estellerria eta Erriberagoiena.

– Iruñerria.

Horregatik guztiagatik, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzuteko:

Pamplona/Iruña–Donostia/San Sebastián emakidan, Nafarroako Gobernuak kanpoko enpresaren bat kontratatu al du emakida horren definizioarekin lotutako zerbitzuren baterako?

Hala baldin bada, zer enpresa da hori? zein da enpresa horrekin egindako kontratuaren xedea? zer denbora-aurreikuspen du zerbitzu-prestazio horrek?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## 11-24/PES-00237. Galdera, Tafallako Errekoleten fatxadak garbitzeko proiektua gelditu izanari buruzkoa

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, Tafallako Errekoleten fatxadak garbitzeko proiektua gelditu izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

1. Nafarroako Gobernuak zergatik geldiarazi du Tafallako Errekoleten fatxadak garbitzeko proiektua?

2. Nafarroako Gobernuak proiektuari eutsiko al dio? Hala baldin bada, zer epe darabil gogoan?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 8an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## 11-24/PES-00238. Galdera, AHTren Partzuergoaren Kontseiluaren deialdiari buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 20234o maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, AHTren Partzuergoaren Kontseiluaren deialdiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Lurralde Kohesiorako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Legegintzaldi honetan zergatik ez da AHTaren Partzuergoaren Kontseiluaren deialdirik egin?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00239. Galdera, Ikerkuntzako Batxilergoaren gaineko araudiari buruzkoa

*JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak egindako galdera, Ikerkuntzako Batxilergoaren gaineko araudiari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide den Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Hezkuntzako kontseilariari, idatziz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentua lantzen ari al da Ikerkuntzako Batxilergoaren gaineko araudia? Zer arauditan oinarritzen dira gaur egun?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

## 11-24/PES-00240. Galdera, Familia Planaren azken ebaluazioari buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Familia Planaren azken ebaluazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak hasi al du Familia Planaren azken ebaluazioa?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00241. Galdera, familia plan berri bat taxutzeari buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, familia plan berri bat taxutzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Departamentuak ba al du beste familia plan bat egiteko asmorik? Hala baldin bada, zer epe ezarri dio bere buruari?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

## 11-24/PES-00242. Galdera, Familia Planaren balorazioari buruzkoa

*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko maiatzaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak egindako galdera, Familia Planaren balorazioari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluak agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2024ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Noizko uste duzu bukatuko dela Familia Planaren balorazioa?

Iruñean, 2024ko maiatzaren 9an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

# 11-24/PES-00088. Galdera, unibertsitate-beken partida exekutatzeari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak unibertsitate-beken partida exekutatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko martxoaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du unibertsitateko beken partida betetzeari buruz (11-24/PES-00088). Hona Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Jarraian jasota dago hizpide den partidaren betetze xehatua.

– 2022-23 deialdia: 2.852.656,5 €

– Aurreko deialdietako baliabideak ordaintzeko dirua: 22.589,12 €

– Betetakoa, guztira 2.875.245,62 €

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak ahalegin handia egiten du unibertsitateko bekak herritar guztiei iristeko.

Hori dela eta, 2023-2024 deialdiko beketan % 30 inguruko igoera sartu dugu egoitzei lotutako laguntzarako errenta muga guztietan, hau da, aurreko deialdiekin alderatuta, 340-660 euro bitarteko onura gehigarria, ikasturte akademikoan beren familia egoitzatik kanpo bizi behar duten 650 ikasle inguruen alde egiteko.

Hori guztia, 2024rako onetsitako aurrekontuetan 3,6 milioiraino iristen den aurrekontu partidaren zati handiena gauzatzeko helburuarekin. Izan ere, partida horrekin lortu nahi dugu ikasleen talentua izatea prestakuntza jasotzeko muga bakarra.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko martxoaren 11n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

# 11-24/PES-00089. Galdera, Boliviako osasun-arduradunek urtarrilaren 15etik 19ra bitartean Nafarroara egindako bisitako agendari buruzkoa

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak Boliviako osasun-arduradunek urtarrilaren 15etik 19ra bitartean Nafarroara egindako bisitako agendari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2024ko otsailaren 23ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak erantsitako informazioa ematen du Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak idatziz erantzuteko egin duen galderaren harira (11-24/PES-00089). Horren bidez Boliviako osasun arloko arduradunek urtarrilaren 15etik 19ra bitarte Nafarroara egindako bisitaren agenda xehakatua eskatu du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2024ko otsailaren 26an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## BOLIVIAKO BISITAREN JARDUEREN AGENDA - 2024ko urtarrilaren 15etik 19ra

**Agendaren koordinazioa:** Natalia H.

**Edukien agendaren prestakuntza:** laguntza teknikoko proiektuko talde boluntarioa

**Zeinek egin zuen bidaia: Javier Román** (MM koordinatzailea Bolivian), **Henry Flores** (MM kontsultorea), **Milton Gonzales** (Ministerioa; Osasun Ministerioko Arriskuak, Larrialdiak eta Hondamenak Kudeatzeko Unitateko (Ugred) burua) eta **Edmundo Cruz** (Ministerioa; Larrialdiak kudeatzeko zentro nazionala).

**EGINDAKO JARDUERAK:**

| A 1/15 | Gaia | Edukiak | Lekua | MMko zeinek hartzen du parte |
|---|---|---|---|---|
| 09:30etik 11:00etara | Nafarroako Osasun Sistema (O-NOZ) | NAM taldea eta bisitariak aurkeztea.<br>Osasun sistema publikoaren antolaketa eta larrialdiak eta emergentziak artatzeko eredua. Eman diren urratsak eta egungo egoera ezagutzea. Nola iritsi den egungo eredura. Ikaskizun baliotsuak. | CAMPLUS | Kiko, Elena, Imanol, Mariví, Andrés, Natalia, Idoia |
| 11:30etik 13:30era | NOUko Larrialdiak | NOUko Larrialdi zerbitzura bisita Azalpen teorikoa funtzionamenduari buruz. In situ bisita, ikusteko nolakoa den espazioa, anbulantzien etorrera, nola erabakitzen den larrialdiak nora bidali eta nola kudeatzen den horien etorrera. Heliportuaren funtzionamendua.<br>Zerbitzuburu Iosu eta Arantza Arizkurenekin, besteak beste | **NOU** | Kiko, Imanol, Natalia |
| 13:45etik 14:45era | Donibaneko Osasun etxea | Iruñeko osasun etxe batek eskaintzen dituen zerbitzuak eta larrialdiak nola kudeatzen diren ezagutzea<br>(artatzeak, deribazioak, etxeetarako irteerak).<br>Mediku batekin (Charo Elcuaz) eta erizain batekin (Aurora Salaberri) | Donibaneko Osasun etxea | Charo, Natalia |
| | | **BAZKARIA** | | |
| 17:30etik 19:30era | Garesko osasun etxea | Bisita Garesko osasun etxera. Iruñetik urrun dagoen osasun etxe batek eskaintzen dituen zerbitzuak eta landa eremuko larrialdi-zerbitzuaren funtzionamendua ezagutzea O-NOZen autoa erabiltzea.<br>Bisitara doa Jaime Alfonso (osasun etxeko medikua). | Gares | Imanol, Charo, Andrés, Natalia |

| A 1/16 | Gaia | Edukia | Lekua | MMko zeinek hartzen du parte |
|---|---|---|---|---|
| 9:00etatik 10:45era | Larrialdietako koordinazioa | Larrialdietako koordinazioa eta garraio sanitarioa zerbitzu artean (suhiltzaileak,polizia, osasun zerbitzua). Gai horrek Nafarroan, oro har, eta 112 zentroan izan duen bilakaera azaltzea. | CAMPLUS | Kiko, Mariví, Fran, Imanol, Natalia, Idoia |
| 11:00etatik 13:45era | 112 zentroa (larrialdien koordinazioa) | 112 zentroaren eginkizuna eta funtzionamendua in situ ezagutzea. Egoera desberdinak nola artatzen diren bizitzea. Terminalaren erabilera.<br>José Javier Boulandier eta Cristina Goñirekin, besteak beste. | 112 zentroa | Mariví, Kiko, Natalia e Idoia |
| | | **BAZKARIA** | | |
| 16:30etik 18:30era | Ospitalez kanpoko larrialdien zerbitzua<br>Erizaintzako bizi euskarriko anbulantziak | Bisita San Martín zentroko larrialdietako zerbitzura. Ospitalez kanpoko larrialdien zerbitzu baten funtzionamendua ezagutzea.<br>Bisita anbulantzien basera (ASV Erizaintza). Ekipamendua, langileak eta anbulantziaren funtzionamendua | San Martín zentroa<br>ASVA-E basea San Martinen | Kiko, Charo, Elena, Natalia<br>Kiko, Charo, Elena, Natalia |

| A 1/17 | Gaia | Edukia | Lekua | MMko zeinek hartzen du parte |
|---|---|---|---|---|
| 9:00etatik 10:30era | Osasun-garraioa | Dagoen anbulantzia-sarea: anbulantzia motak, nola gaitzen diren, noren menpe dauden, nola koordinatzen diren, hitzarmenak eta abar. Anbulantzia-mota bakoitzaren ekipamendua eta funtzionamendua ezagutzea. Zer langilek esku hartzen duten eta zer prestakuntza duten. Osasuneko Lanbide Eskola Teknikoaren eta Segurtasun eta Larrialdi Eskolaren eginkizuna. Anbulantzien enpresa publiko berriaren eginkizuna eta aurreikusitako funtzionamendua. | **CAMPLUS** | Kiko, Fran, Imanol, Andrés, Elena, Natalia, Idoia |
| 10:30etik 11:00etara | Elkarrizketa, hedabideak bertan direla. | | **CAMPLUS** | Kiko, Fran, Imanol, Andrés, Elena, Natalia, Idoia |
| 11:15etik 12:45era | Anbulantzien basea | Bisita Baztan-Bidasoako anbulantzien basera Landabenen. Garraio programatuaren eta larrialdietako garraioaren funtzionamendua ezagutzea. | Landaben | Kiko, Imanol, Elena, Natalia |
| 13:00etatik 14:30era | Helikopteroak larrialdietan | Helikoptero medikalizatuen funtzionamendua ezagutzea. Ekipamendua, langileak, eginkizuna, noren menpe dauden...<br>Topaketa Barneko kontseilariarekin eta larrialdiak artatzearekin zerikusia duten zerbitzuen arduradunekin. | Miluzeko basea | Kiko, Imanol, Elena, Natalia |
| | | **BAZKARIA** | | |
| 16:30etik 18:30era | Erizaintzako bizi euskarriko anbulantziak | Bisita Buztintxuriko anbulantzia medikalizatuen basera. Ekipamendua, langileak, nola kudeatzen den... Larrialdietako historia kliniko informatizatuaren funtzionamendua, TESen rola. | A199 basea Buztintxurin | Imanol, Elena, Natalia eta idoia |

| O 1/18 | Gaia | Edukia | Lekua | Parte-hartzaileak |
|---|---|---|---|---|
| 10:00etatik 13:00etara | Larrialdiak koordinatzeko eta artatzeko zentroaren bilakaera | Sakontzea Boliviako pertsonentzat interesekoak diren alderdietan. | CAMPLUS | Mariví, Fran, Andrés, Natalia H |
| 9:00etatik 14:00etara | MM-REN BILERA ESPEZIFIKOAK (BAKARRIK JAVIERREKIN) | Topaketa Nafarroako Gobernuko eta Iruñeko Udaleko kooperazio zerbitzuetako langileekin.<br>Topaketa MM NAM taldearekin.<br>Topaketa Boliviako talde teknikoarekin | Hainbat tokitan | Javier, Idoia, Nat. H, Nat. S Bulegoa |
| | | BAZKARIA | | |
| | | ARRATSALDE **LIBREA DENONTZAT, JAVIERRENTZAT IZAN EZIK** | | |
